

Bilera hartan onarturiko ebazpenen laburpena ematen da argitara:

1.- ERREFUXIATUEI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Aspalditik Europako mugetan krisia dago eta horietan giza eskubideak urratzen dira. Espainiar Estatuan ederki ikusi dugu Ceuta eta Melillako hesietan.

Mundu osoan giza exodoa gertatzen ari da, eta ezinbestean gizartearen erakunde eta alor guztien irtenbide berriak behar dira, bai eta konpromisoak, elkartasuna, eskuzabaltasuna eta ausardia ere. Sekula ez da hainbeste jende beharturik egon bortxazko lekualdatze horiek egitera: 2016an, 60 milioitik gora gizaki babesik gabe bizi dira errefuxiatuak izateagatik. 2015ean solik, 19 milioitik gora gizakik sorterritik bortxaz alde egiteko erabakia hartu behar izan zuten, hainbat arrazoiengatik: bortizkeria, jazarpenak, gosea, gerra edo klima aldaketa.

Horiatarik guztietarik oso gutxi saiatu dira Europara etortzen: milioi bat baino gutxiago. Eta, gainera, ez dute deus onik aurkitu: ateak itxita, tratu txarrak eta oinarrizko eskubideak ukatzea. Honaino heltzeko, ezkutuko bidaiak egin behar izan dituzte, Mediterraneo eta Egeo itsasoetan edo Balkanetako mendietan hiltzeko arriskuan egonik.

Europako erakundeek irtenbide bakarra proposatu zuten, European 120.000 pertsona birkokatze plan bat, alegia, pertsona merkatua itxura duen erabakia (pertsona kupo eta sortak kudeatzea). Bost hilabeteren buruan, 300ek baino gutxiagok jaso dute plan horren onura. Espainiako Estatura 15.000 pertsonak etorri behar zuten, baina 18 besterik ez dira heldu, Nafarrora inor ez, 300 aurreikusirik zeuden arren. Kopuru irrigarriak eta alferrak dira horiek, exodoa anitzez handiagoa baita.

Behar baino gutxiago izanik ere, bazirudien Europako estatuak zerbait egiten ari zirela, baina ez da hala izan. Aste honetan zerbait egiten hasi dira: etorkin andana kanporatzeko proposatu dute, horietarik gehienak babes politiko eske egoten ahal diren arren. Gizakiak kanporatzea diru truke, beste herrialde batzuei sosa emanen baitiete, Turkiari, besteak beste, kanporatuak har ditzaten. Arestian aipaturiko neurriek giza merkatuaren itxura badute, azken hura pertsonen salerosketa zantzua du.

Egiatzko Europak ez du halako neurrik hartu, bai, ordea, Europa ofizialak. Elkartasunarekin bat egiten duen egiazko Europatik proposatzen dizuegu erakunde gisa adierazpen honi atxikitzeko. NBEk bezala, Europak honako hauek salatzen ditu: atzerritarrak beste herrialde batera zuzenki kanporatzea xedatzen duen ebazpen oro Europako legediaren eta nazioarteko giza legediaren aurkakoak dira; gizakiak multzoka kanporatzea Europako Giza Eskubideen Hitzarmenak debekaturik dago; gezur hutsa da babesa eskatzen duten pertsonendako Turkia herrialde segurua dela esatea, ederki dokumentaturik baitago handik Siriara kanporatzen dutela jendea eta mugan siriarrei tiro egiten dietela.

Baina hori guztia zenbaki hutsak dira, bidegabekeriak, letra larriz idazten diren horietarikoak. Baina egiazko bidegabekeria larriak beste batzuk dira. Bidegabekeria larria pertsona horietariko bakoitzaren sufrimendua da, Europako politikak pairatzen dituztenena.

Konpondu ezineko sufrimendua da iragan urtean Mediterraneoan hil ziren 3.000 pertsonena eta aurten 300 baino gehiagorena.

Sufrimendu handia Lesbosera atzo heldu ziren 3.000 pertsonena, Europar Batasunak Atenaserako ferryak bertan behera uzteagatik hantxe gelditu baitziren. Sufrimendu handia 70.000 pertsona baino gehiago Atenasen geldituko baitira, sufrimendu latza autobusa ordaindurik Atenasetik atera eta kilometro gutxi eginik ibilgailutik jaistera behartzen baitituzte.

Sufrimendu krudela Idomenin gaur gertatzen ari da, Greziaren eta Mazedoniaren arteko muga hura itxi baitute. Horren ondorioz, milaka pertsonak beteriko kanpaleku ziztrinak sortu dira, urik eta janaririk gabe. Kanpaina dendan nonahi, euripean eta hotz ikaran. Aire zabaleko sagu habia dela esaten dute han daudenek.

“Izugarrikeria” heldu da Europara. Gure esku dago betiko ez gelditzea. Horregatik, hain zuzen, Udalari eskatzen diogu elkartasuna oinarri duen egiazko Europa horrekin bat egitea. 8 boto alde eta abstentzio bakarra izanik, honako hau onartu da:

AITORPENA:

Udal honek Europako Batzordeari, Europako estatuei eta, zehazki, Espainiar Estatuari zera eskatzen die:

- IDOMENIRA GIZA LAGUNTZA BEREHALA igortzea, Greziaren eta Mazedoniaren arteko muga itxi ondoren han gelditu diren pertsona guztien beharrak asetzeko.
- EUROPAKO BATASUNAREN BARNEKO MUGA GUZIAK BEREHALA IREKITZEA, IDOMENIKO MUGA lehenik, hura itxita giza krisi larria sortzen ari baita.
- Europara SARTZEKO BIDE SEGURUAK jartzea, hara heltzen saiatzen ari diren pertsona guztiendako, eta “bide arriskutsuetatik” heldu diren pertsonak EZ KANPORATZEA.
- “Kupo europarra” kontuan harturik, 300 pertsona NAFARRORA BEREHALA EKARTZEA eta Nafarroako Gobernuak behar bezala hartzea.
- BABES ALORREKO NAZIOARTEKO LEGEDIA BETETZEA, horren irakurketa eskuzabala eginik eta gaur egun Europako estatuek egiten duten interpretazio murrizta bazterrean utzirik.
- MIGRAZIO POLITIKAK ALDATZEA, ATZERRITARREN LEGEA INDARGABETZEA, harrera oinarri duten politiken eta giza eskubideen alde jokaturik eta zigorra eta kanporaketa dituztenak bazterturik.
- Pertsonak ASKE IBILTZEKO ESKUBIDEA bermatzea, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. artikulua xedatzen duen bezala.
- “EB-REN ETA TURKIAREN ARTEKO HITZARMENA INDARGABETZEA, errefuxiatuei buruzko Goi-bilera Bereziaren esparruan”.